

**AGINDUA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUARENA,  
EUSKADIKO MERKATARI-ELKARTEEN ERREGISTROA SORTZEKO DEKRETU-  
PROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEKO DENA.**

2004ko martxoaren 7ko Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion Euskadiko merkatarien elkarten Erregistroa sortzeko xedapen orokor bat egiteko prozedurari.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.1 artikulua hau xedatzen du: Xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

Hori dela eta, prestatutako dekretu-proiektuaren testua aztertuta, honako hau

**EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.-** Euskadiko Merkatarikari Elkarten Erregistroaren dekretu-proiektua alde aurretik onartzea.

**Bigarrena.-** Dekretu-proiektuaren prozedura izapidetzen jarraitzeko agintzea, Hasierako Aginduan eta Xedapen orokorrek egiteko prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako izapideei jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, sinadura digitalaren data.

JAVIER HURTADO DOMINGUEZ  
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUA





XXX/2024 DEKRETUA, XXXaren XX (e)koa, Euskadiko Merkatarari Elkarteen Erregistroa sortzen eta arautzen duena.

XII. legegintzaldian onartutako Merkataritza 2030 Estrategiak EAEko merkataritza-sektorerara bideratutako politika publikoak bideratu behar dituzten ildo estrategikoak ezartzen ditu, eta 2021-2025 eta 2026-2030 Ekintza Planetan jaso behar dira.

Estrategiaren oinarria, beste printzipio batzuen artean, enpresak kokatzea da sektorearen eraldaketaren erdigunean, konpromisoa eta erantzukizuna sustatuz. Enpresa-ingurune dinamiko bat sustatu nahi da, non politika publikoak enpresei laguntzera eta haien eraldaketa errazteko beharrezkoak diren tresnak ematera bideratuko baititu, aldaketaren protagonistak izanik. Era berean, gero eta handiagoa den sektore-hibridazioa jasotzen du, baita merkataritza eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuen pixkanakako integrazioa ere hiri-ekonomiaren kontzeptuaren inguruan; egitate hori hartu da kontuan arau honetan.

Estrategiaren oinarrietako bat zeharkako eta erakundearteko gobernantza baten beharra da, lan partekatu eta sinergiko batean. Merkataritza-sektorea sistema konplexua da eta sentikorra erakundeetako, sektoreetako eta lurraldeetako eragileren erabakiekin; enpresa-arloan, oso atomizatuta eta elkartze-dinamiketan oinarrituta dago. Erakunde-governantza irekia da eta koordinatuta dago eragile publiko horiekin, eta lankidetzak aktiboa du sektoreko ordezkari pribatuekin, bultzatu eta hobetu beharreko ezinbesteko ereduak izanik.

Merkataritza-sektoreak, atomizaziotik abiatuta, tresna natural bihurtzen du asoziazionismoa, eta hori hobetzeko, elkarrekin-modu biziak sustatu behar dira, oinarri zabalekoak eta parte-hartze aktibokoak, elkarlaneko eta eraginkortasuneko gizarte-arteko giroaren esparruan, lankidetzak publiko-pribatuko eredu berrien inguruko kobernanzarako bideak eta mekanismoak ahalbidetzeko.

Horregatik guztiagatik, funtsezkotzat jotzen da informazio egiazkoa eta eguneratua edukitzea, baita adierazle zehatzak ere, merkataritza-sektorerako politika publiko eraginkor eta egokien oinarri izango direnak; izan ere, premia horrek inspiratzen du Euskadiko Merkatarari Elkarteen Erregistroa sortzea eta arautzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko 148/1997 Dekretuak, 184/2015 Dekretuak aldatuak, Merkatararien Elkarteen Errolda ezarri zuen, sektorean duten ordezkariak ebaluatzeko, solaskidetzak errazteko eta elkarteen egoera hobeto ezagutzeko, elkarteen helburua sektorearen lehiakortasuna hobetzera bideratuta dagoela ulertuta. Igarotako denbora ikusita, arauak ez die erantzuten egungo inguruabarrei; hortaz, beharrezkotzat jotzen da erregulazio berri bat izatea, hala izendapenean bertan nola funtzionamenduan, betekizunen erregulazioan, elkarteen izaeran eta inskripzioaren ondorioetan.

Dekretua honela dago egituratuta: 14 artikulua, bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat. Edukia honako hau da: 1.



artikuluak arauaren helburua ezartzen du; 2. artikulua erregistroaren ezaugarriak ezartzen ditu; 3. artikulua inskribatu beharreko elkarteak definitzen ditu; 4., 5. eta 6. artikuluek, hurrenez hurren, erregistroko inskripzioaren eskakizunak, eskabidea eta ebazpena ezartzen dituzte; 7. artikulua erregistro-inskripzioaren edukia xedatzen du; 8. artikulua inskripzioan jaso beharreko datuen aldaketa arautzen du; 9. eta 10. artikuluek erregistroan baja ematea xedatzen dute, bai elkarteak berak hala eskatuta, bai ofizioz; 11. artikulua erregistroko informazioaren publikotasuna arautzen du; eta, azkenik, 12. artikulua xedatzen du inskribatutako elkarteek dituzten informatzeko betebeharrak; 13. artikulua inskripzioaren ondorioak ezartzen ditu, eta, azkenik, 14. artikulua Merkataritza Zuzendaritzak Erregistroa kudeatzeko izendatu ahal izango dituen erakunde laguntzaileei egiten die erreferentzia.

Lehen xedapen gehigarria Erregistroaren gaineko eskumenari buruzkoa da; eta bigarrena, datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa. Xedapen iragankorrak ezartzeko epea jasotzen du, xedapen indargabetzaileak ekainaren 17ko 148/1997 Dekretuari eragiten dio, eta azken xedapena hura indarrean sartzeari buruzkoa da.

Horrenbestez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat eta Ekonomia, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2024ko XXXXaren XX(e)an egindako bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

## XEDATZEN DUT

### 1. artikulua. □ Xedea eta helburua

1. Dekretu honen xedea Euskadiko Merkataritza Elkartearen Erregistroa sortzea eta arautzea da.
2. Erregistroaren helburua adierazle objektiboak lortzea da, asoziazionismoa hobeto ezagutzeko eta merkataritza-asoziazionismoa sustatzeko politika egokia egiteko.

### 2. artikulua. □ Erregistroaren ezaugarriak

1. Euskadiko Merkataritza Elkartearen Erregistroak izaera administratiboa, publikoa eta doakoa du, eta Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Zuzendaritzari dago atxikita.
2. Erregistroko eskabideak eta komunikazioak telematikoki kudeatu eta izapidetuko dira.

### 3. artikulua. □ Inskribatu daitezkeen elkarteak

1. Dekretu honen ondorioetarako, honako hauek izango dira merkatarien elkarteak:
  - a) Soilik merkataritzakoak diren elkarteak: merkataritza-enpresen eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuen interesak defendatzeko soilik sortuak. Kideak



txikizkako eta handizkako merkataritzan, automobilaren salmentan eta konponketan eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuetan diharduten enpresak baino ez dira.

Dekretu honen ondorioetarako, merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuetzat hartuko dira ekonomia-jardueren gaineko zergaren 691, 971, 972, 973 edo 975 epigrafeetan sailkatutakoak.

b) Elkarte mistoak: bazkideen artean beste jarduera-sektore batzuetako enpresak dituztenak, hala nola ostalaritza edo zerbitzuak oro har, betiere, haietako % 15, gutxienez, aurreko apartatuan aurreikusitako merkataritza-enpresak badira.

c) Elkarteen federazioak edo konfederazioak: aurreko apartatuetan aipatutako elkarteek, batez ere, osatutako federazioak eta konfederazioak.

2. Saltoki bakoitzak zehaztutako jarduera ekonomikoek enpresaren jarduera nagusia aipatu behar dute; edo, gutxienez, enpresaren fakturazio osoaren % 40.

#### **4. artikulua. □ Inskripzioa egiteko betekizunak**

Inskripzioa egin nahi duten elkarteek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Irabazi-asmorik gabeko elkarte gisa eratuta egotea, nortasun juridikoarekin eta, bere izaera kontuan hartuta, dagokion erregistroan behar bezala inskribatuta.

b) Egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan izatea eta Euskal Autonomia Erkidegoan jardutea.

c) Estatutuen helburu nagusia bazkideen merkataritza-jarduera defendatzea edo sustatzea izatea.

d) Merkataritza-sektoreari erreferentzia egitea espresuki izenean.

e) Enpresa-jardueraren batean diharduten bazkideak soilik edukitzea.

f) Batez ere merkataritza-enpresak ez diren elkarteetan, batzorde espezifiko bat egon beharko da, Estatutuetan berariaz jaso, merkataritza-sektoreko afiliatuentzat.

#### **5. artikulua. □ Inskripzio-eskaera eta dokumentazioa**

1. Euskadiko Merkataritza Elkarteen Erregistroan inskribatzeko, elkarte interesdunak behar den eskabidea aurkeztu beharko du modu telematikoan. Borondatezkoa izango da inskripzio hori.

2. Eskaerarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Elkartearen eratze-akta eta estatutuak, dagokion erregistroan behar bezala inskribatuta, inskripzio-eskaera egiten den unean eguneratuta, eta Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 8. eta 9. artikuluetan aipatutako gutxieneko edukia izango dute.



Elkarteei buruz jasotzen diren aipamenak, bai elkarteak eratzeari eta funtzionatzeari buruzkoak, bai eta beste edozein alderdi buruzkoak ere, berdin ezarriko zaizkie federazioei, konfederazioei eta elkarteek era ditzaketen bestelako batasunei.

b) Elkartekideen zerrenda kuotak edo ekarpenak ordainduta dauzkatena adierazita, urteroko abenduaren hogeita hamaikan.

c) Erakundearen idazkaritzaren ziurtagiria, non jasoko baita presidentearen oniritzia eta egiaztatuko baita dekretu honen 4. artikuluan adierazitako eskakizunak betetzen direla, zehatz-mehatz, honako hauek:

- 1) Elkartearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- 2) Elkartearen egoitza.
- 3) Elkartearen zuzendaritza-organoen osaera, eta haiek osatzen dituzten pertsonen identitatea, kargua eta identifikazio fiskaleko zenbakia, inskripzio-eskaera egiten den unean eguneratuta.
- 4) Bazkide kopurua, aurreko urteko abenduaren 31n.
- 5) Bazkideen kuoten sarrerak, itxitako azken ekitaldia kontuan hartuta.
- 6) Elkarteari ordaindu beharreko kuotak egunean dituzten bazkideen kopurua eta haien zenbatekoa, hori guztia eskabidea aurkezten den uneari dagokionez.
- 7) Hala badagokio, zer federazio edo konfederaziotakoa den.

c) Elkarteko enpresen zerrenda, honako datu hauek zehaztuta:

- 1) Izena edo sozietatearen izena
- 2) Merkataritza-izena
- 3) Helbidea
- 4) Telefonoa
- 5) Identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) edo identifikazio fiskaleko kodea (IFK).
- 6) Ekonomia-jardueren gaineko zergaren kodea eta elkartean inskribatutako establezimenduaren edo establezimenduen jarduera nagusia.
- 7) Alta-data
- 8) Elkarteko kide kopurua
- 9) Establezimenduko titularraren sexua
- 10) Kokapenaren koodenatuak (latitueda, longitueda)

Federazioen edo konfederazioen kasuan, idazkariak emandako ziurtagiria aurkeztuko da bazkideen zerrendarekin, eta goian adierazitako dokumentazioa soilik aurkeztu beharko da erregistratu gabeko elkarteen kasuan.



Dokumentazio hori aurkezteak informazio-ondorioak baino ez du edukiko, eta ez du ekarriko aipatutako Erregistro horretan inskribatu behar denik, elkarte interesdunak berariaz eskatu beharko baitu.

d) Elkartearen ordezkaritza duenak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, aurkeztutako datuak eta agiriak egiazkoak direla adierazten duena.

## 6. artikulua. □ Inskripzio-ebazpena

1. Eskabidea osorik ez badago, 10 egun balioduneko epea emango zaio elkarteari konpontzeko, eta ohartaraziko zaio ezen, izapidetzen amaitu ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela.

2. Elkarteak inskribatzeko behar diren eskakizun guztiak bete badira eskabidean, Merkataritza Zuzendaritzak emango du horretarako ebazpena. Bestela, inskribatzeko eskaera ezeztatuko du, ebazpen arrazoituaren bidez.

3.- Inskripzio-prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da, eskaera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Erregistro Elektronikoa sartzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta gero, ebazpen espresurik eman eta jakinarazi ez bada, entitate interesdunak administrazio-isiltasunez baietsi dela ulertu ahalko du.

4.- Emango den ebazpenak ez dio amaiera emango administrazio-bideari, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke interesdunek organo kudeatzailearen hierarkian goragokoari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, betiere Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

## 7. artikulua. □ Inskripzioaren edukia

Elkartearen inskripzioan, datu hauek jasoko dira:

- a) Entitatearen izena.
- b) Sozietatearen identifikazio fiskaleko zenbakia.
- c) Soilik merkataritza-elkartea den, elkarte mistoa, federazioa edo aurrekoen konfederazioa.
- d) Hala badagokio, zer federazio edo konfederaziotakoa den.
- e) Egoitza soziala
- f) Jarduteko lurralde-eremua eta eremu funtzionala
- g) Elkartearen zuzendaritza-organoen titularren izen-abizenak.
- h) Elkartekideen zerrenda kuotak edo ekarpenak ordainduta dauzkatenak adierazita, urteroko abenduaren hogeita hamaikan.



- i) Uneko urteko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua, urteko kuoten zenbatekoa adierazita.
- j) Zenbateko kuota ordaindu behar duen elkartekide bakoitzak urteko.
- k) Bazkideen zerrenda, merkataritza-izena eta establezimendua helbidea adierazita.
- l) Noiz inskribatu den elkartean; noiz izan duen aldaketarik, eta noiz eman duen baja erregistroan.
- m) Erregistroko inskripzio-zenbakia.

## 8. artikulua. □ Inskripzio-datuak aldatzea

1. Erregistroan inskribatutako merkataritza-elkartek Merkataritza Zuzendaritzari eman behar diote inskripzio-datuetan egiten duten edozein aldaketaren berri; aldaketa horiek ez dute izan behar inskripziorako behar diren eskakizunetako bat galtzea eragin dezakeen bat ere.

2. Aldaketen jakinarazpenarekin batera, aldaketaren egitatea egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuko da. Jakinarazpena eta egiaztagiria aurkezteko epea hilabetekoa izango da aldaketa egiten den unetik aurrera.

3. Aldaketaren bat gertatzen bada, eta aurreko apartatuko epea igarota, elkarreak ez badu jakinarazi bere datuen eguneratzea, erregistroan baja eman ahal izango zaio eta inskripzio horrek dakartzan eskubideak galduko ditu. Egoera hori identifikatu ondoren, elkarreari eskatuko zaio hilabeteko epean horren berri emateko, eta erantzunik jasotzen ez badu, baja emango zaio ofizioz erregistroan.

## 9. artikulua. □ Erregistroan baja emateko eskabidea

1. Inskripziorako eskatutako eskakizunetako bat galduz gero, Erregistroko baja eskatu beharko du elkarreak.

2. Eskabidea hilabeteko epean egin beharko da, baja eragiten duten egitateak sortzen direnetik hasita.

3. Baja erabakitzeke ebazpena emango da, zeina eman eta jakinarazi beharko baita hiru hileko epean, eskabidea erakunde autonomoaren erregistro elektronikoa sartzen denetik hasita. Ez bada epe horretan ebazpena jakinarazten, baietsitakotzat hartuko da administrazio-isiltasunaren ondorioz.

## 10. artikulua. □ Erregistroan baja emateko agindua

1. Erregistroko baja ofizioz ere agindu ahal izango da egoera hauetan:

- a) Elkarreak dekretu honetan ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen ez baditu.
- b) Ebazpen administratibo edo judizial irmo baten bidez aurkeztutako datuak faltsuak direla deklaritzen denean.



2. Hala bada, baja ematea erabaki ahal izango da Merkataritza Zuzendaritzak emandako ebazpen ziodun baten bidez, eraginpeko elkarteari entzunaldiaren izapidea egin ostean.
3. Erregistroan baja dakarren adierazpenak bost urtez iraungo du, gutxienez, artikuluko honen lehen apartatuko b) letran adierazten diren kasuetan, eta urtebete eta bi urte bitartean, berriz, apartatu bereko a) letrako kasuan.
4. Erregistroan baja emateko epea igarotakoan, elkarteak berriro eskatu ahal izango du inskripzioa.
5. Emango den ebazpenak ez dio amaiera emango administrazio-bideari, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez diezaiokete interesdunek organo kudeatzailearen hierarkian goragokoari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

## 11. artikulua. □ Erregistroko informazioaren publikotasuna

1. Euskadiko Merkataritza Elkarteen Erregistroan inskribatzeko eman beharreko datuak publikoak dira.
2. Izaera publikoa izango dute Erregistroan inskribatutako elkarten datu hauek:
  - a) Izena
  - b) Identifikazio fiskaleko Zenbakia
  - c) Egoitza soziala
  - d) Erregistroan izena emateko data eta, hala badagokio, bajaren behin betiko edo aldi baterako etetearen data.
  - e) Entitate mota: soilik merkataritza-elkartea, elkarte mistoa, federazioa edo aurrekoen konfederazioa.
  - f) Hala badagokio, zer federazio edo konfederaziotakoa den.
  - g) Jarduteko lurralde-eremua eta eremu funtzionala
  - h) Elkartearen artezkaritza-organoen titularren izen-abizenak.
  - i) Kuotak edo ekarpenak ordainduta dauzkaten elkartekideen kopurua, urteroko abenduaren hogeita hamaikan.
  - j) Bazkideen zerrenda, merkataritza-izena eta establezimenduen helbidea adierazita.
  - k) Erregistroko inskripzio-zenbakia.
3. Merkataritza Zuzendaritzak inskribatuta dagoela ziurtatuko du elkarteak eskatuta.
4. Merkataritza Zuzendaritzak, interesdunak eskatuta, Erregistroko datuen edukiari buruzko ziurtagiria emango du. Horrela emandako ziurtagiriak agiri publikotzat hartuko dira, eta erregistro-orrien idazpenen edukia modu frogagarrian egiaztatzeko bide bakarra





izango dira. Ziurtagiriak elektronikoki eskatu beharko dira, eskabide sinatuaren bidez, zeina Erregistroari zuzenduko zaion, eta eskaeraren helburua adierazi beharko duen. Hamabost eguneko gehieneko epean emango dira ziurtagiriak, eskabideari Erregistroan sarrera eman eta hurrengo egunetik hasita.

## 12. artikulua. □ Inskribatutako elkarteen lankidetzarako betebeharra

1. Inskribatutako elkarteek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute urte natural bakoitzeko lehen hiruhilekoan, alde batera utzi gabe 8. artikuluan ezarritakoa:
  - a) Elkartekideen zerrenda kuotak edo ekarpenak ordainduta dauzkatenak adierazita, urteroko abenduaren hogeita hamaikan.
  - b) Uneko urteko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua, urteko kuoten zenbatekoa eta bazkide batek ordaindu beharreko urteko zenbatekoa adierazita, hura egonez gero.
2. Organo kudeatzaileak inskribatutako datuak berresteko eskatu ahal izango die inskribatutako erakundeei, edozein unetan, eta ohartaraziko die ezen, eskakizun hori betetzen ez badute, ofiziosz hasi ahal izango dela Erregistroko inskripzioari baja emateko prozedura.
3. Inskribatutako merkatarien elkarteek Merkataritza Zuzendaritzaren esku jarriko dute eskatzen zaien informazio eta dokumentazio guztia, emandako datuak egiazkoak direla eta dekretu honetan ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko.

## 13. artikulua. □ Inskripzioaren ondorioak

1. Erregistroan aldeztatik izena ematea ezinbesteko baldintza izango da elkarte batek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak merkataritzaren arloan ematen dituen laguntzen deialdia egin ahal izateko.

Era berean, ezin izango zaizkie eman laguntza horiek Erregistroan inskripzioa ezeztatua duten elkartei, baldin eta ezeztapen irmoa izan bada eta horiek emateko ebazpenaren eguna baino lehen egin bada.

2. Erregistroan inskribatzea ezinbesteko baldintza izango da elkarte batek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin merkataritza-arloko lankidetzahitzarmenak edo -protokoloak gauzatu ahal izateko eta Administrazio horren aurrean merkataritza-sektorearen ordezkari gisa jarduteko.

## 14. artikulua. □ Erakunde laguntzaileak

Merkataritza Zuzendaritzak erakunde laguntzaileak izendatu ditzake erregistro hau kudeatzeko, dagokion lankidetzahitzarmenean jasotako zehaztapenekin.

## LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA. Erregistroaren gaineko eskumena



Dekretu honetan Merkataritza Zuzendaritzari egindako aipamenak merkataritzaren arloan eskumena duen zuzendaritzari egindakotzat hartuko dira.

### **BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Datu pertsonalak babestea**

Datu pertsonalen tratamendua egin behar bada, honako araudi hau beteko da: batetik, 2016/679 (EB) Erregelamendua —Datuak babesteko erregelamendu orokorra—, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du), eta, bestetik, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

### **XEDAPEN IRAGANKORRA. Ezartzeko epea**

1. Ekainaren 17ko 148/1997 Dekretuan arautako Merkatarien Elkarten Erroldako inskripzioek eraginkortasun osoa izango dute dekretua indarrean jarri eta sei hileko epean; baina, epe hori igarota, ez dute inolako eraginik izango.
2. Dekretu hau indarrean jartzen denean, ekainaren 17ko 148/1997 Dekretuak araututako Merkatarien Elkarten Erroldan inskribatuta dauden elkarteek dekretu honetako eskakizunak bete beharko dituzte eta inskripzio-eskabidea egin 5. artikuluan adierazitakoaren arabera, EAEko kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarten erregistroan sartu ahal izateko.
3. Betiere, hiru hilekoa izango da Euskadiko Merkataritza Elkarten Erregistroan inskribatzeko eskabidea egiteko epea, dekretua indarrean jartzen denetik hasita.

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA. Arauak indargabetzea**

Indargabetuta gelditzen dira Euskadiko Merkatarien Elkarten Errolda arautzen duen ekainaren 17ko 148/1997 Dekretua eta arau honetan ezarritakoaren kontrakoak diren xedapen guztiak.

### **AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea**

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, XXXXXX(e)an.

Lehendakaria, XXXXX.



TURISMO, MERKATARITZA  
ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua, XXXXXX.